



PRESTAKUNTZA PROIEKTUA

2025/2026 IKASTURTE AKADEMIKOA

Praktiketako ikaslea

Espezialitatea: HEZKUNTZA ORIENTAZIOA

Jn./and.

(Masterreko tutorearen izen-abizenak)

Saila: _____

Jn./and.

Instruktorearen izen-abizenak:

NAN:

Tel:

e-maila:

Praktiketako Zentroa: _____

Honako hau da ja:

- EHUk emandako irakaskuntzak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen prestakuntza Unibertsitate Masterra-BBLH.
- Masterreko Practicumeko konpetentziak (atxikiak):
- Ikasleak Garatu beharreko jarduerak edo zereginak:

Garatu beharreko jarduera edo zereginen azalpena

1- Behaketa fasea

2- Esku-hartze fasea



4. Practicum Programaren iraupena:

5. Praktikaren ordutegia:

Goizez ☐ edota Arratsaldez ☐

6. Ordu kopuru guztira: 190 ordu

7. Ikasleen zerrenda (*ikasle bat baino gehiago direnean; kasu horretan, horietako bakoitzaren tutorea eta instruktorea adierazi beharko dira*):

Ikasleak (NAN, abizenak eta izena)	Ikasketa-tutorea	Instruktorea

Aldeek bi ale izenpetzen dituzte, _____(a)n,

UPV/EHUren IZENEAN	ERAKUNDEAREN izenean
UTA (Sinadura eta zigilua)	INSTRUKTOREA (Sinadura eta zigilua)

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO OINARRIZKO GAITASUNAK:

- 1) Estrategiak eskuratzea ikasleen ahalegina suspertzeko eta berak bakarrik eta beste batzuekin ikasteko gaitasuna bultzatzeko, eta, era berean, estrategia horien bidez pentsatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna, autonomia, garatuz joan dadin, bai eta konfiantza handiagoa eta ekimen handiagoa ere.
- 2) Ikasketairakaskuntza prozesua planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea, indartuz kasuan kasuko ikasketetako gaitasunak eskuratzea ahalbidetuko duten heziketa proiektuak, kontuan izanda, betiere, ikasleek duten maila eta prestakuntza, eta eman behar zaien orientazioa; hori guztia, bakarkako lanaren bidez edo ikastegiko beste irakasle batzuekin lankidetzan.
- 3) Ikastetxean ezarriko den curriculuma zehaztea talde lanaren bidez; hezkuntza metodologiak garatzea eta ezartzea, ikasleek taldean zein bakarka egin dezaten lan, eta kontuan izanda ikasleen aniztasuna.
- 4) Ikasketa guneak diseinatu eta garatzea arreta berezia eskainiz ekitateari, heziketa emozionalari eta balioetan oinarritutakoari, gizonen eta emakumeen daukaten eskubide eta aukera berdintasunari, herritartasunari eta gizartean bizikidetzan bizitzea eta erabakiak hartzea errazten duten giza eskubideei, hartara etorkizun jasangarria eraikitzeke.
- 5) Hezkuntza sistemako araudia eta erakunde antolamendua ezagutzea, bai eta ikastetxeetan kalitatea hobetzeko ezar daitezkeen ereduak ere.
- 6) Informazioa bilatzea, lortzea, prozesatzea eta komunikatzea (ahoz, idatziz, ikusentzunezko bidez, euskarri digitalean eta multimedia bidez), hori guztia ezagutza bihurtzea, eta ezartzea kasuan kasuko espezialitateari dagozkion gaitetako ikasketairakaskuntza prozesuetan.
- 7) Jarduera formalak eta ezformalak diseinatzea eta egitea ikastetxea bere inguruan partaidetzarako eta kulturarako gune izan dadin; tutoretza lana egitea eta ikasleei orientazioa ematea lankidetzan eta modu koordinatuan; ikasketairakaskuntza prozesuen ebaluazioan, ikerketan eta berrikuntzan parte hartzea.
- 8) Gelako interakzio eta komunikazio prozesuak ezagutzea, gelan ikasketa eta bizikidetzak bultzatzeko beharrezko diren trebetasun eta gaitasun sozialak ondo ezagutzea, eta aurre egitea diziiplina arazoei eta gatazkak konpontze prozesuei.
- 9) Irakaslanaren garrantzia azpimarratzea, eta bizialdi osoko garapen profesionala eta ikaskuntza bultzatzea.
- 10) Familiei informazioa eta aholkularitza ematea, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuari buruz eta beren seme-alaben orientazio pertsonal, akademiko eta profesionalari buruz.
- 11) Ikasleen ezaugarri psikopedagogikoak ezagutzea, ebaluatu ahal izateko eta behar dituzten txostenak egiteko.
- 12) Aniztasunari erantzuteko har daitezkeen neurriak ezagutzea, kasu bakoitzean behar den aholkularitza eman ahal izateko.
- 13) Ikastetxearen antolamendua eta funtzionamendua aztertzea, ikasleen orientazio pertsonala, akademikoa eta profesionala koordinatzeko, eskola-komunitateko kideekin lankidetzan.
- 14) Familiei seme-alaben garapen- eta ikaskuntza-prozesuari buruzko aholkularitza egokia eman ahal izateko beharrezkoak diren trebetasunak eta teknikak garatzea.
- 15) Ikastetxeak zer zerbitzu publikorekin eta komunitate-erakunderekin lan egin dezakeen identifikatzea, eta, zuzendaritza-taldearekin lankidetzan, ikasleei arreta hobea emateko beharrezko ekintzak sustatzea eta planifikatzea.

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN GENERIKOAK:

- 1) Espezialitateko gaiak planifikatzeko, irakasteko eta ebaluatzeko prozesuan esperientzia eskuratzea.
- 2) Irakasle lanerako beharrezko den ahozko adierazpen eta adierazpen idatzi egokia erabiltzea.
- 3) Jarduera eremu desberdinetarako hobekuntza proposamenetan parte hartzea, praktikan oinarritutako gogoeta abiapuntu hartuta.
- 4) Trebezia eta abilezia sozialak ezartzen jakitea, ikaskuntza prozesua giro onean garatzeko eta bizikidetza bultzatzeko.
- 5) Ikasleen, beren gizarte inguruabarren eta motibazioen ezaugarriak ezagutzea.
- 6) Hezkuntzako ikerketa eta ebaluaziorako oinarritzko teknikak ikastea eta ezartzea, eta ikerketako, berrikuntzako eta ebaluazio proiektuak diseinatu eta garatzeko gai izatea.
- 7) Orientazioari dagokionez, ebaluazio psikopedagogikoan trebatzea, hezkuntzako beste profesional batzuei, ikasleei eta familiei aholkuak eman ahal izateko.
- 8) Praktikak egiten diren eskola-errealitatea aztertzea, masterrean ikasitako esparru teorikoak erabilia.
- 9) Hezkuntza-orientazioaren eta aholkularitza psikopedagogikoaren arloan esku hartzeko plan bat planifikatzea, garatzea edo ebaluatzea.
- 10) Esperientzia hartzea hezkuntza-orientazioan eta aholkularitza psikopedagogikoan, eta ahozko eta idatzizko adierazpena eta ariketa horretarako beharrezkoak diren konpetentzia profesionalak ondo menderatzen dituztela egiaztatzea.
- 11) Egindako esku-hartzearen hobekuntza-eremu posibleak identifikatzea, proposamenaren oinarri teorikoak eta proposamena nola ebaluatuko litzatekeen argudiatuz.
- 12) Norberaren esperientzia eta aurretiazko ezagutzak berrikustea, practicum egitean eskuratutako edo garatutako gaitasunen ikuspegitik.

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

- 1) Eskola bizitzan parte hartzea, ikastetxearen plangintzan eta antolamenduan.
- 2) Parte hartzea ikastetxetik kanpoko eragileekin egiten diren jardueretan, hain zuzen ere, guraso, elkarte, hezkuntza zerbitzu eta erakundeekin egiten diren jardueretan.
- 3) Practicum antolatzea eta planifikatzea ikastetxeko bizitzako parte izateko eta unibertsitatean eskuratutako ezagutzarekin lotzeko.
- 4) Ikasle mota desberdinak aztertzea aniztasunaren arloko heziketa sentsibilizazioa garatzeko.